

M I K O L B E I L A D U M A

Edgar Allan Poe
BIHOTZ ZELATARIA eta KATU BELTZA



BIHOTZ ZELATARIA ETA KATU BELTZA

EDGAR ALLAN POE

Moldapena eta lan orriak
ANA ARAKISTAIN JAUREGUI

DESCLÉE DE BROUWER

AURKIBIDEA

Bihotz zelataria.	7
Katu beltza.	19
Ariketak.	37

BIHOTZ ZELATARIA

Aitortzen dut: oso urduria naiz, oso-oso urduria. Beti izan naiz. Baina, nork esaten du zoratuta nagoela? Gaixotasunak nire **zentzuak zorroztu** ditu, baina ez ditu desegin ezta **kamustu** ere. Hauetatik sentsibleena entzume-na da. Zeruko eta lurreko gauza guztiak entzun ditut eta ifernuko batzuk ere bai. Orduan, nola egongo naiz zoratuta? Erne! Begira nolako patxadaz, nolako lasaitasunez kontatu ahal dizue-dan istorio hau:

Ez da erraza azaltzea ideia nola sartu zen nire buruan. Baina, sartu ondoren ezin nuen burutik kendu ere egin. Motiborik, benetan, ez zegoen batere. Ez zeukan pasioarekin zer ikusirik. Nik agurea maite nuen, inoiz ez zidan kalterik egin. Inoiz ez ninduen iraindu. Bere diruak ez zuen nigan inolako **gutiziarik** sortu...

Uste dut bere begia zela. Bai, hori zen! Bere begi bat **putreen** begiak bezalakoa zen. Urdin



Zentzu: “sentido”.

Zorroz(tu): zentzumena piztu.

Kamus(tu): zorrotza izan den zentzua itzali.

Gutizia: zerbait lortzeko gogo bizia edo nahia.

Putre: hildako animalien haragia jaten duen hegazti handia.

argia zen, **lausotua**, katarata batekin. Begi harekin begiratzen zidanean odola izozten zitzaidan. Orduan, pixkanaka-pixkanaka, zaharra hiltzeko ideia sartu zitzaidan buruan, begirada hartatik libre gelditzeko.

Orain dator azaltzea zailena dena. Zalantzarik gabe zoratuta nagoela pentsatuko duzue. Zoroek ez dakite ezer, baina, ikusi bazenuten nolako inteligentziaz aritu nintzen, nolako **maltzurkeriaz** ibili nintzen...

Hilketa aurreko astean inoiz baino atsegina-go agertu nintzen. Egunero, gauerdia aldera, bere ateko **krisketa** ireki ondoren, zirrikitutik linterna gor bat sartzen nuen, ongi eutsita, argitasunik ez pasatzeko. Gero, burua sartzen nuen. O...! Barre egingo zenuten burua nola sartzen nuen ikustean. Poliki mugitzen nuen, oso mantso, agurea esnatzeko beldurrez. Gutxienez ordubete behar nuen **zirrikitutik** buru guztia sartu eta agurea ikusteko. Zoro bat hain **zuhurra** izango zen?

Orduan, nire burua gela barruan zegoenean linterna irekitzen nuen (kontuz, kontu handiz!). Ateak hotsa ateratzen baitzuen. Oso gutxi ire-

10



Lauso(tu): begia lausoaz (lainoaz) estali.

Maltzurkeria: ingurukoak engainatzeko erraztasuna.

Krismet: atea irekitzeko nahiz ixteko ziria (makila).

Zirrikitu: irekidura.

Zuhur: ongi pentsatuta, arreta handiz aritzen dena.

kitzen nuen, argi izpi bat nahikoa zen eta bere begi gainean jartzeko. Hori zazpi gau amai ezinetan egin nuen, gauerdian beti. Baina, beti begia itxita aurkitzen nuen, eta horrela, nire asmoa betetzea ezinezkoa izan zen, haserretzen ninduen ez baitzen agurea, begia baizik. Goizero eguna argitzen zuenean bere gelan lasai sartzen nintzen eta beldurrik gabe hitz egiten nion. Bere izena ahots gozoz esaten nuen eta gaua ongi pasatu zuen galdetzen nion. Ulertuko duzue bada, oso gizon argia izan behar zela gauero, hamabietan, lo zegoen bitartean, berari begira egoten nintzela **susmatzeko**.

Azkenean, bederatzigarren gauean, lehen baino kontu handiagoz ireki nuen atea. Erloju baten orratza orduan nire eskua baino azkarra-go mugituko zen. Ordurarte ez nintzen konturatu nire **ahalmenez**, nire **zuhurtziaz**. Nire **garaipen**-sentsazioa ezin nuen menperatu. Pentsatzea han nengoela atea pixkanaka-pixkanaka irekitzen eta berak ez zuela nire asmoen susmorik ere.

Pentsamendu honekin barretxoa atera zitzaidan eta agian entzun egin zuen, bere ohean mugitu egin baitzen. Orain agian pentsatuko



Susmatu: gauzak ondo jakin gabe juzkuren bat egin, “sospechar”.

Ahalmen: zerbait egiteko bideak, posibilitateak eduki.

Zuhurtzia: “prudencia”.

Garaipen: “victoria”.